



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

EHUko IKASLE KONTSEILUAK ZABALDUTAKO INFORMAZIOEN AURREAN IKASLE MUGIMENDUEN KRIMINALIZAZIO OROKORTUA GAITZESTEN DU ETA ARDURAZ JOKATZEKO DEIA EGIN DU

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Leioa, 2026ko martxoaren 23a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak bere kezka adierazi nahi du azken egunotan argitaratutako informazioen aurrean. Informazio horietan, eduki politikoko testu bat “beldurrarazte” edo “mehatxu” gisa aurkezten da, nahiz eta, haren idazketari erreparatuta, ikasle mugimenduen kriminalizazioa salatze eta unibertsitatean pentsamendu kritikoa zein eskubide politikoak defendatzeko testu bat izan.

EHUko Ikasle Kontseiluaren aburuz, ikasleak estigmatizatzen eta unibertsitateko bizikidetzak kaltetzen laguntzen duten markoak elikatzea arduragabekeria larria da. Unibertsitate publikoak aniztasunerako, eztabaidarako eta parte-hartzeko espazioa izan behar du, non desadostasun politikoak normaltasunez adierazi ahal diren, modu baketsuan eta hedabideetako seinalatze kanpainarik gabe.

Kontseiluak, beti egin izan duen bezala, berretsi egin nahiko luke Unibertsitate Komunitateko edozein kiderenganako mehatxua, hertsapena edo errespetu falta dakarren edozein jokabideren aurkako jarrera. Aldi berean, horretarako oinarri sendorik izan gabe, ikasleen adierazpen politikoak jokabide intimidatzaileekin alderatzea onartezina dela argi adierazi behar dela deritzo.

EHUk pentsamendu kritikorako, parte-hartze demokratikorako eta bizikidetzarako espazioa izaten jarraitu behar du. EHUko Ikasle Kontseiluko lehendakari den Iñigo Ugedoren hitzetan, *“tentsio publikoa gero eta handiagoa den une honetan, eragile politiko, mediatiko eta instituzional guztiei arduraz jokatzeko deia egiten diegu, gehiegikerian, kriminalizazioan eta konfrontazioan oinarritutako tentsioaren gorakada bat elikatu ez dezaten”*.

EHUko Ikasle Kontseilua



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Contacto:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua

P R E N T S A O H A R R A